Aurten Nafarroako euskararen legeak 40 urte. Euskarak behar duen legea noizko?
EZ DITUGU BERTZE 40 URTE

Heldu den abenduaren 15ean beteko ditu 40 urte Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak. Nafarroako berezko hizkuntza da euskara, eta horrela jasotzen du lege horrek, euskara babesteko eta haren galera eragozteko betekizunarekin batera. Praktikan, herritarrei euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea aitortzen badie ere, ezberdinkeria gainditu eta justizia soziolinguistikoa lortzeko kamutsa suertatu da.

Izan ere, euskarak eta bere hiztunek historian zehar jasan duten asimilazio eta ordezkapen prozesuaren aitzinean, sortutako bidegabekeria eta gabeziak konpondu ordez, legea bera arazo eragile izan da hasieratik; urteotan hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa izan da, baita euskararen garapenaren aurkako politikak ere.

Euskara hizkuntza gutxitua da, baldintza soziolinguistiko, juridiko eta politiko makurragoak ditu hegemonikoa den gaztelaniaren aldean. Udalerri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoari buruzko ikerketa eta prospekzioek argi erakusten dute euskararen galera prozesuak indarrean diraula eta nagusitasun eremuak arrisku bizian daudela; larrialdi linguistikoan gaude.

Euskararen legeak zonifikazioa ezartzen du eta herritarren hizkuntza eskubideak eremuaren arabera mailakatzen ditu. Eremu euskaldunean kokatzen diren gure herrietan euskara 1986az geroztik ofiziala izanagatik, oraindik ere nabarmena da ez dagoela hizkuntzen arteko inolako berdintasunik. Adibide aunitz ematen ahal ditugu, bakar batzuk bertzerik ez aipatzearren, euskarazko osasun arreta ezin bermatzea, euskararen ezagutza bermatzen ez duen A eredua, eta arlo sozioekonomikoan euskaraz jarduteko zailtasun eta trabak. Izan ere, ofizialtasunak bertze tresna eta garapenik gabe ez dakar bere horretan eta automatikoki hobekuntzarik; mugatua eta kamutsa suertatzen ahal da.

Legearen arabera “botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminaturik izan ez daitezen” (3.1 artikulua), eta, zehazki eremu euskaldunaren kasuan, “Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dutela” aitortzen du (10.1 artikulua). Legeak dio administrazioek ofizialtasuna garatzeko neurriak progresiboki hartuko dituztela. Alabaina, lau hamarkadaren ondotik agerian gelditu da herritarren hizkuntza eskubideak, euskarazko zerbitzu eskaintza eta aukera berdintasuna ez daudela bermatuta, eta justizia soziolinguistikotik urrun gaudela oraindik.

Aurrekari horiek guziak kontuan hartuta, euskararen aldeko lege baten beharra mahai gaineratu nahi dugu:

- Euskaldunontzat eskubide berdintasuna ekarriko duen lege berria aldarrikatzen dugu, injustiziak zuzendu, herritarron ongizatea zaindu eta gizarte kohesioa erraztuko dituena. Lege berriak herritarren artean dagoen bereizkeriarekin bukatu behar du.
- Nafarroa osoan euskara ofiziala izatea, hizkuntza eskubideak bermatzeko urrats sendoak eman daitezen. Ez gara ordea ofizialtasuna asmo onen adierazpen hutsera mugatzearekin konformatzen. Ofizialtasunak ondorio juridikoak izanen baditu, berau

gauzatzeko eta garatzeko arauak, neurriak eta politikak beharrezkoak izanen dira. Hortaz, lege berri batek ofizialtasuna eta bere ondorio juridikoak indarrean paratzea izan beharko ditu ardatz.

- Legeak gizarte bizitzan euskararen erabilera normalizatzea izan behar du helburutzat; euskararen garapena eta segida. Hortaz, euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza politika ausart bati oinarri sendoak eskaini beharko dizkio, minorizazio egoera gainditu eta gizarte esparru eta funtzio guztietara hedatzeko. Horretarako, eremu guztietan eraginen duen legea izan beharko du: administrazioan, hezkuntzan, hedabideetan, kulturan, eremu sozioekonomikoan, etab.
- Larrialdi linguistikoari eta aurreikusten den galera prozesuari aurre egiteko balioko duen lege ausarta behar dugu, udalerri euskaldun eta arnasguneak aitortu eta babestuko dituena, euskararen biziberritzean betetzen duten funtzioa aintzatetsiz.